


BATEOA



1711 80 -

Euskal Biblioteka Labayru



1016533
RELIGIÓN / N. 221

B A T E O A

EGIN: **Dionisio Borobio**'k.

EUSKERATU: Pedro Pujana'k.

MARRAZKIAK: J. M. Muñoz'ek.

BANANDU: Elizbarrutiko Liturji-Idazkaritzak.

Henao, 5 - Bilbao-9.

I S B N 84 - 400 - 5892 - 6.

Eliz-baimenakin.

Printed in Spain

Bilbao'n, 1973-ko jorraillak 1.

Depósito legal: BI-733-1973.



I.-UME BAT JAIO

JAKU TA...

GAUZA AUNDIA DALA? BAI TA EZ

Norbait jaiotea, zein iltea... ori eguneroko gauzea da.

Urlia zein berendia jaio naiz il egin dala-ta, ez da iñor artegatuko, ez dau iñortxok be zirkiñik egingo, etxe-koak-eta izan ezik. Une onetantxe be ainbeste ta ainbeste jaio ta ilko dira!

Norberarentzat, alan be, ezer be ez jaiotea ta iltea baiño aundiagorik, garrantzitsuagorik. Ez jatzu ori bein baiño jazoko. Bein bakarrik, geiagotan ez.

Jaio ezkeru, bizitzari asiera emon dautsazu; il ezkeru, barriz, lur-gain onetan zureak egin dau.

Jaiotea, izan be, bizi aal izatea da.

Ta umetxo bat jaioten danean, gora-bera aundiko zerbait jazo da: bizitza aberastu egin da, mundua aundiagotu, leen etzan zerbait bada orain lurrean.

Ez da iñor gure orde z etorriko. Ni-neu bakarrik izango naz, neu nazanez eta nazan langoa neu besterik ez, neure izaera ta biziera onegaz, neure gaitasun, akatz eta guzti.

Egunero jazo oi dan ori, beste guztientzako gora-bera txikiko dan ori, zuretzat eta niretzat aundienetarikoa da. Bizitzara jaio garealako dakigu, jakin be, zer dan jaio izana.

ZORIONAK!

Umetxo bat jaio dala? Ba, ori guraso batzuk izan diralako, orrexegaitik izan da.

Norbaitek egin dau mirari ori; maitatzeko, itxaroteko ta sufritzeko gauza izan dan batek.

Zeuok izan zarie. Zeuok: GURASUOK!

Umetxoa, maitasun sortzailleak ekarria da.

Gizonaren sortzaille almenak ipiñitako landarea.

Ba eta da, gero, gizonarentzat bikaiñago dan gauzarik bizia emotea baiño? Ta miragarriago danik bai ete, bizi-sortzaille izatea baiño?

Orregaitik, ZORIONAK!

Zuen senide, adiskide ta auzokoak pozarren joango jatzuez zorionak emoteko.

Elizeak be orixe berori egiten dautsue biotz-biotzez:

—Jainkoagaz batera bizi-emoille izatea gura izan dozue-ta,

—bizitza maite izateko adorea izan dozue-ta,

—gurasoen eginkizuna aintzat artu dozue-ta.

Pozaldi orretan Jainkoa Bera be ortxe dozue, ur-urrean. Ziur-ziur egon.

Berbarik barik, zaratotsik barik, Berak sortu eban bizitzari arnas egiten diardu.

Guk, ostera, ta burutan artu be egin barik, Arek egiña iraun-azo besterik ez dogu egiten.

Ori dala-ta, ondo legokelakoan nago gure eskerrona Berari biotz-biotzez agertzea, esanaz: ESKERRAK ZURI, JAUN ORRI!

TA OSPATU EGIN BEAR

Gora-bera aundiko zerbait jazoten jakunean, gizonaren bizialdian gaillur-une izango dan zerbait datorkigunean, jazoera ori ospatu egiten dogu.

Jaiotea naiz gizartean egille ta eragille izaten astea, ikastaldi bat amaitu, zein ezkontzea, arazo astun bat garbitzea, naiz lanbide egoki bat lortzea ta beste onango zera gizonaren geroko bizitza mugatu ta etorbideratu egin oi dabe. Onegaitik, orrelako jazokizunak OSPATU egin daroaguz.

Ospakizun dana, baiña, ez da egundo be norberak baka-riik egin bearrekoa. Lagunartean ospatu bear dan gauzea da. Izan be, zerbait ospatzea auxe dozu: zerbait ori beste batzuen artean banantzea.

Ona zergaitik dei egiten dautsegun etxekoai ta lagunai jatorduren bat edo egiteko, kafea artzeko... eurekaz alkartzen gareala. Orrelakoetan, jai egiten dogu.

Gugaz zer-ikusirik badaben guztiak, maitatzen zein ondo ikusten gaituenak bizitzako pozaldi orretan geure ondoan daukaguz.

OSPAKUNTZA AUXE DOGU, BERAZ:

GEURE-GEURE TA GURE BIZITZAREN GUNAGUNAKO DAN ZERBAIT DALA-TA,

ONELAKO NAIZ ARELAKO JAIALDIA EGITEA.

Ta... orrelakoetan noz-edo-noz Elizara be joan izan gara.

Esan be, beti orixe esan dauskue-ta...

Erabagia artu be egingo zenduen onezkero: «Abadeari esan bear jako ia umea noiz bateatu geinken».

Ederto! Ori zer dala-ta egin bear dozuen, baiña, ikusi ete dozue? Elizan zer ospatuko dozuen ba ete dakizue?

Ta orrek zer esan gura dauan be bai?



II.-UMEAK BATEATU EGIN BEAR ETE DIRA?

«BETI ORIXE IRAKATSI DAUSKUE-TA»...

Elizeak beti irakatsi izan dau umeak bateatu egin bear dirana. Ori egi-egia da. Ta bateatu be, beti bateatu izan ditu. Ori ez dau, baiña, beti era berean egin. Lenengo kristauak gizon-emakume elduak ziran. «Ixi-

lirik» errotan euren kristau-bizitza, ta gorde-lekue-
tan alkartzen ziran. Geienetan aurrean erabilleezan.
Gitxi-gitxi onartzen zituzten. Erri ze-zeko jendea zan.
Alako munduan gatz be gatz zan sinistea ta kristau iza-
tea. Orregaitik, norbait kristau-alkarte barruan sartu
baiño leen, ondo baiño obeto gertau bearra eukan, ala-
ko eldutasun bat bear eban. Bene-benetan kristau ziran
gurasoen seme-alabak be bateatzen ebezan, ori bai;
baiña egoera aretan nagusi ta eldu ziranak, batez be,
artzen eban Bateoa.

Joan ziran lenengo lau gizaldiak. Fededunak ugaritu ta
ugaritu egin ziran. Kristau-erlijioa ondo ikusia izan zan,
legearen aurrean onartua. Estaduak berak bere erlijio-
notzat artu eban. Kristau izatea etzan arriskua ekarren
zerbait. Bestetara bai, aundi izateko bidea, bai, askoren-
tzat. Kristautasunak izen ona eukan. Eta fedea ukatzeko
arriskua be gitxitu egin zan.

Orra zelan erri-egoera aldatu zan. Eta Bateorako bear
ziran gauzak be bai. Umeak kristau-giro baten biziko
baziran, zer zala-ta eskatu leenagoko gauza nekezak?
Berez-berez edo kristau izango ziranak, zer zala-ta ba-
teatu barik itzi?

Bateoa zeruratzeko bearrezko etzan, ba? Ta umetxoa
Bateo barik il ezkerro, ainbeste ta ainbeste jazoten ja-
ken, zer egin? Negar?

Onango ta antzeko errazoiak eraginda, ume guztiak ba-
teatzeko oiturea zabaldu zan egal guztietara. Ta batez
be gizon-emakume elduentzat zan Bateoa ume jaioba-
rrirei be eurrez emoten asi ziran.

Oitura onek iraun dau Elizan gure egunak arte. Au dala-ta,
jaiobarriak nunai bateatzen dira. Ez daukagu zertan
mire egin. Ezta gurasoak sinisbakoak izanarren be, zein
euren bizikerea Ebanjeliotik urrun egonarren be. Ume-
txo bat ez bateatzea, orixe, bai, izango litzakela mire
egitekoa. Orduan, bai, gure izena agotan erabilliko leu-

keela. Bateoa, beraz, munduko bizitzarako bearrezko
balitz legez artzen dogu; erriak eta auzoak eskatzen
dauskun betebear bat dala esan geinke.

«GURE SEMEA KRISTAU IZATEA NAI DOGU»

Gurasoak gurari au agertzen badabe, Elizea, kristau-alkarte ta bertan buru diranak poztu egiten dira.

Etxe baten umetxo bat jaio bada, bertakoak bekoki-illun egongo ete dira?

Era berean kristau-sendia be alai ta irribarrez egongo da landaratxu eder-polit bat datorkionean. Ta jazoera au ospatu egingo dau, Bateoan ospatu be.

Umea bateatu gura izatea ta beronentzat sakramentu ori eskatzea, bidezko ta egoki da. Guraso kristauak dituan edonork dauko orretarako eskubidea. Ta gurasoak umea eroan be, sinismen-bizitzara, Bateora ta kristau-alkartera eroan bear dabe.

Ori naikoa eta da, baiña?

Umea bateatuta beste barik egiten eta da kristau?

Zer da kristau izatea? Bizitzak zera irakasten dauku: askotan eta askotan au zein bestea opa izaten doguzala, ta gero orretarako bear litzaken erabagirik artu ez. Ebanjelioak, barriz, onoko au dirausku: norbait kristau izateko ez dala naikoa bateatuta egotea, fedea ta fede onetan bizi izateko erabagi sendoa nai ta naiezko dirala.

Bai, bai. Umetxua bateatzeko asmoa oso gauza ona do-
zue, baiña ez da naikoa. Bateoa gauza santu-santua da,
baiña dan-dana ez. Oinkada bat emotea bakarrik da. Ba-
teoa artukeran, etxe baten oiñarria ipiñi besterik ez
dogu egiten. Bizialdi guztian jaso bearra da etxe ori,
gaur arri bat, biar beste bat ipinten dogula. Gure egu-
notan asko ta asko dira Bateoa artu dabən «kristauak».
Gitxi-gitxi, ostera, egiatzko kristau legez bizi diranak.

Millakak eta millakak dauke euren izena «bateo-liburuan» ipiñita, ta, alan, be, kristau bizitza utsa daroe. Olakoen-tzat zer izan da bateoa? Umeak bateatu ete daikeguz, gero, kristau zintzo izateko itxaropenik ezpada?

INDARRA BAI... INDARRIK EZ

Zuok, gurasuok, ziur-ziur, gauzarik onena opa dautsa-zue zuen umetxoari, biotzez maite dozue-ta. Badakizue Bateoa gauza ona dana, ta onegaitik nai dozue bateatu. Ume bat bateatzea zer dan jakin zeinke, ori bai, baiña ez jakitea be badaiteke. Bakotxak bere errazoiak izaten dauz erabagiren bat artzen dauanean. Bateatzeko erabagi ori zergaitik artu dozuen aztertu ete dozue, gero?

ZUEN UMEA ZER DALA-TA NAI DOZUE BATEATU?

—Fededunak zareelako ta zuen fede ori umeari emon gura dautsazuelako?

—Kristau zintzo legez bizi zareelako ta umeari be olantxe bizitzen irakatsi nai dautsazuelako?

—Elizaren zati zareelako ta umea be Eliza beronen atal izan daiten?

—Jainkoa maite dozuelako ta zuen seme-alabatxuak be maite izan daian?

—Jainkoaren seme-alaba zareelako ta zuen txikitxo ori be orixe izan daiten?

AURRERA! ZUEN ERRAZOIAK JATORRAK ETA IN-DAR AUNDIKOAK DIRA!

Ala,

—«beste guztiak be orixe egiten dabelako»?

—«etxeko oiturea dalako ta oitura orri kontra egitea gatx jatzuelako»?

—«biar edo etzi umeari agiriren bat falta ez dakion?»

—«bateatu ezik, okerren bat etorri leion bildurrez?»


—«zuekaitik txarto esaten iñor ibilli ez daiten?»

—zeuek federik izan ez arren, umeak berak gero ebatziko daualako ustetan?

BEGIRA, GERO! ERRAZOI ONEIK EZ DABE IN-DARRIK.

Norbera bere buruaren jabe da, ta bere bizialdian au zein bestea egin lei. Elizak ez dau iñor be erlijio arazoe-tan federik barik erabagiren bat artzera beartzen: O-lakorik ez! Abegi ona egiteko ta laguntzeko be prest do-zue. Baiña jakiñaren gaiñean, zintzotasunez eta askatasu-nez jokatu dagizuela nai dau.

Gauza santuak dira ta ezin txantxetan ibilli.



III.-ZER ESKATZEN DAU ELIZAK UMEAK BATEATU AAL IZATEKO?

ALDAKUNTZAK DIRALA-TA

Guztiok dakiguna ta guztion agotan dabillana: Zelan aldatu diran gauzak!

Bai, olantxe da. Mundua ta munduan bizi dan gizona aldatu egiten dira, aldatu.

Egunean egunean albiste ezbarदिña datorkigu. Atzo aurrerapidetzat geunkana gaur baztatu egingo dogu. Egunean baiño egunean aurrerago nai dau gizonak.

Aldatzen eta aldatzen daukagun mundu onetan gizonak be jokabide barriak opa dauz, beste bizikera bat dau gogoko, beste pentsakera bat, maitakera bat, siniskera bat...

Aldi bakotzak bere gustagarriak daukaz, baita erlijio arloan be. Jainkoagazko ta urko lagunagazko artu-emonak beste ikuspegi batetik begiratzen doguz.

Leenago, Jainkoa urrintxo egoala uste izaten genduan, eta bildur izaten geuntsan.

Gaur, oster, urrago daukagula uste dogu, ta maitasunera dei egiten dausku.

Leen, edozein gauzatarako Jainkoagana joaten gintzazan. Gaur, barriz, gizona dala uste dogu gauza guztien iturri ta sorburu. Leenago, erri guztia kristau zan. Ta gaur? Gaur kristau izena galdu dauan gizartean bizi gara.

Asko ta askorentzat, bateatuta egonarren be, Jainkoagan sinistea ta eliztar izatea ezer gitxi dira. Fedea ukatu ez dabe askok ukatuko. Geienak ez dabe baztartzan, baiña oso-osoz onartu be ez. Federik ezpaleukee legez bizi dira.

Gaur ez ete dago, bada, kristaurik? Ez dogu ori esan nai. Leen, orain eta beti izan dira kristau zintzo ta leialak.

Kristau izatea arduraz artzen da gaur Elizan. Onenbeste arduraz egundo be ez artu izana baleiteke. Gauzak barritu gurean gagoz. Beste era bateko kristau bitza sortzen daukagu, munduko arazoakaz arduratsua, alkarregaz bat-ago, siniste-era agiriago ta nabarmenago dogula.

Baiña onoko au be egia da: Bateoa artu daben guztiguztiak ez dabela federik, ezta seme-alabaentzat Bateoa nai daben guraso guztiak be.

Ta gurasoak sinismenik ezpadabe, ze ziurtasun dauko Elizeak, umeak sinismenean eziko dirala? Ta olako ziurtasun barik bateatu ete leitekez? Edozein umeri emon ete leio Bateoa, gurasoak eskatuarren?

EGIAZKO SINISMENA

Elizak ez dautso iñori be sarrerarik ukatzen, bertan sartu nai badau. Ezta edonori be ateak edegiten, fedearen argitan bizi izateko asmorik ezpadauko.

Seme-alabak bateatzeko, ez dautse Elizak gurasoei dirurik eskatzen, ezta olako edo alako giza-maillarik be.

Ateak danentzat dagoz edegita, apalenentzat batez be. Sakramentuak ez dira ez saldu, ez erosi egiten. Kristok eskatzen dauana, orixe eskatu oi dau Elizeak be:

EGIAZKO FEDEA TA SEME-ALABAK FEDE ONEN ARGITAN ETA BEROTAN EZITZEKO ASMO ZINTZOA.

Bai, badakigu. Esatea gauza erreza da. Baiña noiz dan egiazko sinismena ta noiz ez, orixe da benetan gatx. Norberak bere buruari itandu bearko dautso zintzotasun osoz.

Orduan be, auxe itandu bearko genduke:

ZER ETE DA EGIASZKO SINISMENA?

ZER DA FEDEA EUKITEA?

Bateatuta gagozanontzat be ez da alperrekoa itaun au.

Ez dakigu, bearbada, fedea zer dan, itaun au ez dautsagu gure buruari egundo be egin-eta. Norbere buruari itandu ezker, billa be ibilliko giñake, ta billa ibilli ezker, aurkitu be egingo genduke.

Ez da beti errez nai dogun erantzun egoki bat aurkitzen.

Gure bizitzan illunaldiak asko ta asko izan oi dira. Olatan ixillik egon bear. Gizonak, alan be, arduratu egin bear dau, azertu, billa ta billa ibilli...

Gogo-gogoz zoriona nai izanarren be, porrot egiten dogu sarritan.

Zergaitik gagoz egun guztietan oiñazez, negarrez? Zer dala-ta datorkigu ezbearra, miña, geixoa ta eriotza? Zer dala-ta onenbeste gorroto ta injustizi, gerra ta gose munduan? Zertarako da gure bizialdi au? Nor ete naz ni?

Gizonak milla eratara erantzun izan dautse itaun onei.

Diru-zalekeria, norberekeria, andi-gurea ta bestea zapaldu-gurea: orra ezbear ta oker askoren iturri. Ta okerkeri onein aurka gogotsu alegindu bear dogu.

Olantxe askatuko dogu gure burua lotuta gaukezan kate askotatik.

Alan da guzti be, gizonak beti itanduko dau: Zergaitik nago sufritzen? Ta beste batzuei zergaitik sufridu eragiten dautset? Zein da bizitzaren norakoa? Noiz lortuko ete dot nire buruaren askatasun oso-osoa?

SINISTEA ZERA DA: GIZONAK BERE KEZKA TA JAKINGURA GUZTIEI EMOTEN DAUTSEN ERANTZUNIK EGOKIENA TA SAKONENA, BIZITZAREN NUNDIK NORAKOA AREXEK IZENDATZEN DAUSKU-TA.

Sinismenak gure bizitza argitu egiten dau. Egi-egia. Zelan jakin geinke, baiña, nundik nora ibilli bear dogun? Nork esan daikegu egia non dagoan?

Guk, geurez, ezin ori jakin. Gizonaren almenak mugatuak dira. Gure berbak be ez dabe beti egia iragarten, ta bete be ez dogu diñogun guztia beteten.

Lur-gaiñean zertarako gagozan badakigula esaten badogu, ori Norbaitek iragarri dauskulako izan da, etorri be orixe adierazoteko etorri zan gure artera ta. Jainkoak Berak diñoskuna: «Jainkoak aintxiñako gure Gurasoei ainbat eratarra berba egin eutsen Igarleen bidez; azken egunotan, barriz, bere Seme Jesukristoren bitartez egin dausku berba» (Hb 1, 1-2).

Ta Kristo'k guri irakatsi dauskuna egia da (Jn 5, 19-47; 8, 31-32, 45-47). Berak bere buruaz esan ebana: «Neu naz bidea, egia ta bizitza» (Jn 14, 6).

Aren egitadak eta mirariak Berarengan guzurrik ez daga agertzen dabe (Jn 14, 10-11).

«On egiñez igaro zan mundutik» (Act 10, 38): geixoak osatuz, ezeuki ta apalak aldeztuz, pekatuen eta okerren aurka jardunaz.

Onetarakoxe bialdu eban Aitak: «Jaunaren Arnasa nire gaiñean; orregaitik igurtzi nau. Beartsuei Barri Ona

emoteko bialdu nau; giltzapekoei askatasuna ta itsuei ikusmena iragarteko; zapaldueti askatasuna emoteko, eta Jaunaren errukizko urtea iragarteko» (Lc 4, 18-19).

Beragan sinistu ebenei agindu barri bat emon eutsen: «Alkar maite izan egizue, Neuk maite izan zaituedazan legez» (Jn 13, 34-35; 1 Jn 3-4).

Gero, orduko aldunak eta erri-agintariak eriotzara eroan eben. Gurutzean il eragin eben. Ez eben Arengan sinistu. Ta gogaikarri jaken. Galdu egin bear zan alako gizon aspergarria.

Auxe izan zan gizonai emondako maitasun-agiririk beinena: «Jaungoikoak guganako maitakuntza erakusten dau, gu pekatari izanik, Kristo gure alde il zan-eta» (Rom 5, 8).

Aren eriotza etzan utsa ta alperreko izan; okerra, injustizia ta eriotza garaitzeko baiño (1 Cor 15, 54-57). Ontasuna, maitasuna ez'n il.

Kristo'k bere bizitzaz, eriotzaz eta biztueraz Jaungoikoa nor dan adierazo dausku. Era berean, baita gizona nor dan be, ta zertarako gagozan emen. Arrezkero badakigu, jakin be, bizitza zer dan ta eriotzea bera be zer dan.

«Kristo gure Salbagilleak ondatu egin dau eriotzea ta argitara ekarri bizitza ta ezilkortasuna» (2 Tim 1, 10).

Guzti au dala-ta, FEDEA EUKITEA AUXE DALA ESAN GEINKE:

- KRISTO NOR DAN JAKIN, BERAU ONARTU, BERONENGAN USTE OSOA IZAN ETA BERONEN ANTZEKO IZATEN ALEGINDU.
- AREN SALBAZIÑO-EGINTZA EGIATZAT IZAN ETA BETIKO BIZITZA ITXARON.
- BERAK EGIN EBANEZ, GEUK BE ONAREN ETA ZUZENTASUNAREN ALDE JOKATU.
- BESTE NOR-NAI BIOTZ ZABALEZ ARTU, MAITATU TA LAGUNDU.

Elizeak auxe eskatzen dautse gurasoi umetxoak bateatu aal izateko.

ELIZAREN ZATI

Kristo'gan sinistea izanik, Berak irakatsia aintzat artzen dogunok, fededunen alkarte, au da, eliztarren sendi aundi-zabala egiten dogu.

Bateoaren bidez daukagu bertan sarrera, ta Eliza onek munduan daukan egitekoa geure egin daroagu. Bateatuta gagozan guztiok osotzen dogu Jainko-Erria deritxan eta bidez bide Aitagana doan Eliza au. Beronek artu eban bere gain Kristo'ren salbaziño-egintza: «Zoaze mundu zabalean zear ta gizaki guztiai iragarri Barri Ona... lkasle egin laguntalde guztiak, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz eta agindu dautsuedan guztia beteten irakatsiz. Eta jakin egizue: Neu nago zuekatz egun oro azken-aldirarte» (Mc 16, 15; Mt 28, 19-20).

Urteak joan eta urteak etorri, Eliza au saiatu be saiatu da Kristo'k ezarririko eginkizuna burutzen. Batzutan zintzoroago ta leialkiroago beste batzutan baiño. Izan da, bai, argi-aldirik eta illun-aldirik, pekaturik eta on-egiterik. Biok nastauta ta batera agiri dira kondairan zear. Ez mire egin. Eliza bera be gizonezkoa da, ta, orre-gaitik, eten barik garbitzen eta garbitzen joan bear dau.

Bateatuta dagoan nor-k-nai maite-maite izan bear dau Eliza au, beronen zati bizi-bizi dalarik, uts eta utsegiteak ugari eukiarren, geuk be badaukaguz-eta.

Jakiña, onelako okerren aurka gogotsu ta sutsu jokatu bear dogu. Ez da naikoa, «au txarto dago!», «beste a be ondo ez dago!» esanaz, Elizari arpegira txuka ibiltea. Kritika ori geure buruari egin bear geunskio. Ta alegindu be guztiok alegindu bear dogu onbideratu gaitez-zan, orretarako egoki diran erabagiak artuaz.

Aitari men eginarren, bere familiari muzin dagiona, ezin izan etxeko seme jator eta leial. Era berean, Kristo'gan sinistuarren, Elizea baztartzan dauana, fededunen alkarte ezetsi egiten dau-ta, olakoa ezin izan kristau arteza.



Elizea onartzea, ez da kristauengan eta eliz-agintariengan azaltzen diran akatz eta utsak onartzea, ori ez; norberak bere burua Elizaren zatizat izanik, akatz eta uts orrein aurka ekin eta ekin egitea baiño.

Eliza ori zein ete da? Nun aurkitu egiazko Elizea? Eliza mundu guztira zabaldua dago. Egia da. Baiña Elizea bizi ta agertu lekuan lekuko elizbarrutietan, parroketan eta alkarte txikietan egiten da. Alkarteak bata-besteagaz sinismenean eta maitasunean bat eginda dagoz. Alan be, badaukez euren apartekotasun eta ezaugarriak.

Kristau dana ez da onako zein alako alkarte bati «izena emotera» beartuten. Baiña, ori bai, alkarte jakin baten atal izan bear dau. Edozein alkarte dala. Ta bertako beste sinistedunakaz alkarte, eurakaz batzartu Eukaristia ospatzeko, maitasunez bizitzeko ta mundu obe ta zuzenago dana jasoten eurakaz batera aleginduteko. Auxe da sinistedunen alkarte barruan bizi izatea.

Ori dala-ta, seme-alabak bateatu aal izateko, Kristo'k eta Elizak auxe eskatzen dautse gurasoei:

- ELIZA MAITATU TA BERONEGAZ ALKARTUTA BIZI.
- ALKARTE JAKIN BATEN ZATI IZAN, ETA BERONEN EGINKIZUNETAN ESKUARTU.
- SINISTEZ ANAI-ARREBA DIRANAI ON EGIÑEZ BIZI TA EGINTZA ONETAN IRAUN.
- EUREN SEME ZEIN ALABARENGAN ALKARTE ONEN ZATI BIZI IZATEKO GURARIA BIZTUAZOTEN ALEGINDU TA ALEGINDU.



IV. - GORA AUNDIKO GAUZAK EZ DIRA ARRAPALADAN EGITEN

GERTAU EGIN BEAR

Gizonak garrantzi aundiko zerbait egiten doanean, joa-
etorri aundi-aundiko dana esku artean daukanean, ez
dauz gauzak beingo batean egiten. Lenengo gertau, iku-
si, alderdi on eta txarrak aztertu, eta ondo urteten la-
garri izango dituan bideak artu egingo dauz.

Zuen umetxoaren jaioteguna ospatu gura dozuela? Onez-
kero, buruan dozue nortzuri dei egin, nun eta zelan
ospatu, zer dirutza eralgi...

Zuen ume ori bateatu egin gura dozuela? Bidezko gauza

da zeuok gertetea bateoa ospatu aurretik' Zelan? Bateoa artzea zer dan, zeintzuk diran beronen betebe-
rrak, nogaz eta zelan ospatu bear dozuen, eta onango
beste zertzeladak jakinda.

Ez, ez! Gora-bera aundiko arazoetan ez dogu itsumustuan
eta ariñeketan ibilli bear. Ta zuen umearen Bateoa zer-
ikusi aundi-aundiko gauzea da, bai berarentzat, bai gu-
rasuontzat, baita kristau alkartearentzat be. Egiteko za-
gozenaren garrantzia ez da barriketakoa, ezta txantxetan
ibiltekoa be. Zelan, baiña, erabagi? artu, zer egiteko
zagozen ezpadakizue?

Orregaitik,

ELIZEAK GERTETAKO ESKATZEN DAUTSE GURA-
SOAI SEME-ALABAK BATEATU AURRETIK.

Ez goaz iñor beartuten. Bakotxak askatasunez jokatu
bei. Baiña gertete au ontzat ez artzea zera izango litzate-
teke: buru-arintxo egiten doguzala gauzak eta Bateoa
eskatuarren, zer eskatzen dogun ez dakigula erakustea.

BESTE BATZUEKAZ ALKARTU

Ez gagoz bakarrik. Alkartean edo lagunartean daroagu
kristau bizitza ta lagunarte onen bidez darakusku. Al-
karte barruan jazo daitekena guretzat jakingarri da.
Era berean, guri jazo dakigukena be alkartearentzat
interesgarri izan bear.

Iñor be ez da erbesteko bere kristau lagunartearentzat.
Alkar ezautu egin bear dogu, bata-bestearen barri obeto
jakin dagigun eta alkarri obeto lagun gakiozan.

Zuok gura dozuen ori, orixe ber-berori nai izan dagikee
beste guraso batzuk be. Auxe:euren seme-alabak bateatu
ta Elizaren zati egin.

Bakotxak bere eratara egitea, buruz jokatzea izango
ete litzateke? Gauza ber-bera egiteko etorri, ta alkar
ezautu be egin ez?

Bateoa bakarri kospatu ezik, gertau be, ezin geinke ba-
karrik gertau.

Eginkizun bat eta bera baldin badozue, alkarregaz batu
egin bear dozue, Bateoaren joan-etorria edo garrantzia
ausnartzeko, bata-bestearen eritxiak ikusteko, sinis-
menak zer dakarskun jakiteko.

Orregaitik, Bateo aurretik BATZAR-ALDI batzuk egin
oi dira. Batzar oneitara egun beratan bateatuko diran
ume guztien gurasoak joango dira. Aita-amabitxiak be
joan daitezke.

NOIZ? NON? ZELAN?


Gertau-aldi au bearrezko da, ta batzarrok kristau alkarte
bat dagoan leku guztietan izan bear leukee.

Kristau lagunarte batek eskubidea dauko, gaiñera, non
eta zein girotan bizi dan gogoan eukirik, berari ondoen
datorkion bateo-era aukeratzeko, au da, zenbat bider
bateoak egin eta onango beste zertzeladak.

Abadea bera gurasoen etxera joan leiteke, zein gura-
suak eurak be bai abade-etxera. Batzar bat bakarrik
egin daiteke, bi zein iru be bai... Bateoak astero, ama-
bostero, illabetero, iru illabetero, zein sei illabetero be
egin leitezke.

Ez dago orregaitik zetan miraritu. Azaleko gauzak dira.
Onelan zein orrelan egin, gertau egin bear dogu. Auxe
dozu mamiñekoa, auxe ezin alboratu daitekena. Bako-
txak jakin begi arazo onetan zer dagoan «ebatzita»
bera bizi dan alkartean.

Beti-beti auxe gogoan izan: Zuen umetxua bateatu egin
gura dozuela? Ba, aitzen emon abadeari edo arduradun
danari. Berak adierazoko dautsue non, zelan eta noiz
gertau.



V.-BATEOAK ZER DAKARSKUN

Bateo aurretik zer egin bear dozuen orain badakizue. Goazen aurrera. Bateoak berak zer ete dakarsku? Guk-geuk sinismena ipinten dogu. Ta Bateoak emon, zer emoten ete dausku? Beste era batera: bateatuta ta bateatu bagarik dagozanen artean, ba ete da alderik?

BATEOA JAINKOAREN EMOIA DA

— **Bizitza barri bat erantsiten dausku:**

Zuok, gurasuok, bizia emon dautsazue umeari. Egintza onek aundi-aundi egin zaitue. Ta poz-pozik zagoze. Bidezko poza.

Bada, alan be, beste bizitzarik, bikaiñago ta miragarriago dan bizitzarik: JAINKOZKO BIZITZA. Gure begiz

ezin ikusi leitekena. Ta amaitu be, iñoiz amaituko ez dan bizitza zoragarria. Jaungoikoak nai izan daua-lako, emon dauskuna. Ta Kristo'k guretzako irabazi euskuna.

Bateoa emoteko erabilten dan urak zer esan gura dauan ba ete dakizue? Ura, Jainko-bizitzara jaiο galarala adierazoten dauan agiriko zerbait baiño ez da. Urak berak ez dau orrelako aldakuntzarik ekarten. Espiritu Santuak sortu eragiten dau jaiotza barri ori agiriko ur-bustiketaren bidez.

— Jainkoaren seme-alaba egiten gaitu:

Zuen umetxoa berbetan asi daiteneko, «aita»!, «ama»! esaten entzungo dautsazue. Orduan zuen poza neurribakoa izango da. Izan be, olakoxeak izan bear dau. Umetxo ori zeuona da-ta. Bizitzara zeuok ekarri dozue-ta.

Bateoaren bidez zuen seme ori JAINKOAREN SEME egin da. Jainkoari «Aita» deitu daikeo, Jainko-bizitza ber-bera bereganatu dau-ta.

Ta «Gure Aita zeruetan zarana...» esaten irakatsi dagiozunean, zuek barruan nabaritu zenduen antzeko gili-gili gozoa izango dau Jaungoikoak be, onelako otoitz xamur-eztitsua umetxoaren agoz entzunik.

— Jesusegaz bat egiten gaitu:

Kristok guretzat irabazi ebana ez da egundo be aztutekoa. Bera Jainkoaren Seme izan eta eriotzatik, pekatuetatik eta gatxetik atara ginduzan. Bere bizitza emonaz, au da, bere Eriotza ta Biztuararen bidez atara be.

Zuen umetxoa Jainko-seme zergaitik egin dan? Emoi edo doai ori Kristo'k berarentzat irabazi ebalako. Ori dala-ta, Bateoa artzea auxe da: Kristo'gaz alkar-tzea, Beronen Eriotza ta Biztuararen frutua geure-

gandutea, ta guretzat burutu dauan on-egin ori egundo be ez dogula aaztuko berbea emotea.

Zuen umeak: «Jaungoikoari zergaitik deitzen dautsagu Aita»? itandu dagizuenean, auxe erantzun: «Ori, Jesus gure anaia dalako da».

— Erri barria dan ELIZAREN zati egiten gaitu:

Zuen umeari bizitza emon bakarrik ez dozue egin. Geiago be bai: etxe bat, sendi bat atondu be egin dozue maite izango daben lagunak ondoan izan dagan.

Zuen maitasun eta laguntasun bagarik ezin bizi izango litzake.

Jaungoikoak be bere seme alabai orixe egiten dautse: ez bizia emon bakarrik, sendi edo etxe bat eratu dau eurentzat, famili aundi-bikain bat. Famili orretako dana guztientzako da, guztiak dabe Kristo' gan sinistea, guztiak alkar maitatzen. Sendi ori ELI-ZEA da.

Bateoaren bidez Jainko-seme-alaba egin diran guztiak Eliza edo alkarte onen barruan be sartzen dira.

Onegaitik, irakatsi zuen seme-alabei beste guztiakaz anaikiro bizi izaten. Esan, ez dagozala eurak bakarrik, eta sendi berekoak diran guztiak alkar maite-maite izan bear dabela, Aita bat baiño ez dabela, sinismen bat ta asmo ber-berak dabezala...

BATEOAK EGINKIZUNAK DAKARZ GIZONARENTZAT

— Umeentzat eurentzat, batez be:

Umeak Jaungoikoari erantzun egin bear dautso, eskuratu dauan goi-ondasuna aintzat arturik ta sinismenari sendoro èutsirik.

Baiña zelan egin dagike ori umetxoak, Jainkoagaz berbatuteko (konprometiduteko) gauza ezpada?

Umeak ez daki zer dagian. Bateoa artukeran, alan be, geroago burutu bear izango dauan eginkizun bat bere gain artzen dau, ezagueradun eta zentzundun daneko bete bearrekoa.

Betekizun au noren izenean leporatzen eta dau? «Eliza osoaren izenean», bearrezko dan sinistea Elizak ipinten dau-ta, beronek umearen ordezkua egiten dau-ta. Elizaren fedeari esker izan da bateatua jakiñaren gaiñean ezer ezin egin daiken umetxoa. Ta Eliza onek beronek artzen bere gain umea sinismenean ezitzeko ardurea.

—Gurasoak eginbear astuna sorbaldaratzen dabe:

Bateatuak fedean eziteko ardurea Elizak bere gain artzen dauala esan dogu.

Eliza ori gurasoak dira, batez be. «Etxeko eliza» deritxana da langintza onetan arduradun nagusi. Au dala-ta, umea bateatzeko gurasoen sinismena bearrezkoa da.

Sinismen ori bagarik ezin lei umerik bateatu.

Gurasoak sinistun diranean, orduantxe bakarrik egon gaitkez ziur umeak kristau ezibide jatorra izango dabena. Gurasoak eurak sinistu ezik, zelan seme-alabak sinismenean ezi?

Elizeak segurantza ori eskatzen dau, au da, gurasoak euren seme-alabak kristau zintzo izaten irakatsiko dautseela ta itzez eta egitez fedea sendotzen aleginduko dirala. Seme-alabak bateatu ta, gero, kristau fedea azi ta garatu daiten ardurarik izan ez, ori norbait itxasora bota ta urperatzeko arriskuan bertan beera iztea legez izango litzateke.

—Aita-amabitxiak laguntzaille izan bear dabe

Auxe da aita-amabitxien egitekoa: umea kristaukiro ezitzen gurasoei lagundu. Gurasoakaz batera badabe eurak be zeregin ori.

Ez dira gurasoen ordeko, lankide ta laguntzaille baiño. Umetxoen eziketarako egokien diralako, kristau alkarateak aukeratu izan baleuz legez.

— Alkarte osoaren laguntasuna be eskatzen dau

Elizea ez da buruko zerbait bakarrik. Gaur eta ementxe bizi dan kristau alkarte dozu. Zeu bizi zearan alkarte orixe. Ta alkarte orrek umearen eziera langintzan esku-artu bearra dauko. Ume ori berañen atalkide guriena da-ta.

Giro egokia, jarraibide jatorra, zer bear dauan eta axe emon bear dautso umeari, kristau fedean aunditu daiten.

Gurasoak gauza batzuk umeari irakatsi ta, gero, inguruan beste zerbait ikusiko balebe, zer? «Etxe bat egiteko», familiko diran guztiak ez ete dabe laguntzen? Zelan norbera geldi-geldi egon, beste guztiak etxe-giñan dabiltzan bitartean?

Auxe berau jazo oi da kristau bizi-ta dala-ta: eliz-alkarte osotzen dabon guztiak saiatu bear dabe berbaz eta egitez elizagintza onetan.

Lagunartearen maitasuna, ardurea ta ekintza zor jakoz umeari. Bateoa artu aurretik eta artuta gero be bai. Ta guk ezin emonkizunok ukatu.



VI. - BATEOA ZELAN OSPATZEN DAN.

TALDEAN EGIN

Sinistunen erria egiten dogu. Ez dogu sekula be gure sinismena autortzeko lotsaririk izan bear. Kristo gure artean bizi da, ta egi onexek bateratzen, indartzen eta poztuten gaitu.

Ta sinismena agirian agertzeko ta gora-bera aundiko dan zerbait ospatzeko, erri orrek batzarrak egin oi dauz. Bateoaren ospakuntza oneitariko egite bat da.

lñor be ezin, beraz, otz-otz egon, berarentzat zer ikusirik ez daukan ikuskizuna bailitzan. Etorri ta begitu bakarrik eginda be, ezin gaitekez naikotu. Guztioi dagokigu tarteko izatea. Otoitz, zeñu, itaun eta erantzunak guztiontzako dira, gurasoei berariz zuzenduarren. Ta gure jokerea beti oi dogun langoa izan beite, ez aza-

lekoa ta egite utsezkoa. Eguneroko bizitzan zelan diardugun eta alantxe.

Ori dala-ta, batzarraren asieran abadeak arrera ona egiñaz agurtzen gaitu. Gurasoak, barriz, umearen izena zein izango dan, beronentzat zer eskatzen daben eta bearrezko diran fedea ta kristaukiro ezitzeko asmoa be badabezala taldearen aurrean agertuko dabe.

Bidezko da ori, zer egin bear dogun jakiteko eskubidea guztiok daukagu-ta. Bateatzailleak eta gurasoak umearen bekokia ziñatzeak, umea zein ikurraren pean bizi izango dan eta egoera barri orren elburua zein izango dan, adierazoten dau.

Zeatzago esateko, elizkizunaren lenengo edo «sarrera-ko» zati onetan, gurasoak eta aita-amabitxiak auxe esan eta egin oi dabe:

Bateatzailleak: Zein izen nai dozue umearentzat?

Gurasoak: I... (izena esaten dabe).

Bateatzailleak: Zer eskatzen dautsazue Jaungoikoa-
ren Elizari I... rentzat?

Gurasoak: Bateoa (Beste erantzun bat emon dai-
kee gurasoak, esate baterako: sinis-
mena, Kristo'ren grazia. Elizarako sa-
rrera, betiko bizitza...)

Bateatzailleak: Bateoa eskatzen dozue zuen umea-
rentzat. Fedean azi bearko dozue,
aginduai jarraituz, Jainkoa ta lagun
urkoa maite izan dagiazan, Jesus
Jaunak erakutsi deuskun legez. Ba-
dakizue ori?

Gurasoak: Bai, badakigu.

Bateatzailleak: Eta zuek, aitamabitxiok, gurasoai
lagundu bearko dautsazue eginkiz-
zun ori beteten. Nai dozue?

Gurasoak: Bai, nai dogu.

Bateatzailleak: (umeai).

**Elizak poz aundiz artzen zaitue. Be-
raren izenean ziñatzen zaituet gu-
rutzeaz, Kristo gure Salbatzaillea-
ren ezaugarriaz. Zuek bere, aita-
amaok (aita-amabitxiok) nire ondo-
ren ziñatuko dozuez ezaugarri be-
ronegaz.**

(Bateatzailleak umea bekokian ziñatu ez-
kero, guraso ta aita-amabitxiak be orixe
berori egiten dabe).

JAINKOAREN ITZA IRAGARRI TA ONARTU

Bateoa ospakeran egille nagusi Jainkoa dan ezkerro, Beronek esana aditu ta onartu egin bear dogu. Jainkoaren Berbea gugana dator, guri deika ta itaunka etorri be, egiteko dogunaren esanaia azalduz eta sinismenaren argitan bizi izateko bultzatuz.

Jainkoaren Berbea entzun dagian guztiak erantzuna emon bear dautso. Berba onen esankizuna aintzat artu ta beronek argi eginda bizi izateko asmoa izan: orra Berba ori guretzat eragikor dalako ezaupiderik ziurrena. Orixe lortu eragitea da irakurtaldi ta berbaldiaren egitekoa. Urrengo, guztien alde, ta guraso ta bateatzekoen alde, batez be, otoitz egiten dogu. Gure sinismenak eragiten dausku otoitz-aldi ori.

Ta Jainkoari laguntasuna eskatzen dautsagu, etorri be gatxaren aurka gogor egiteko adorea Arexengandik dautorkigu-ta. Auxe adierazoten dau umeen bularra katekumeno-olioz igurtziteak, edo abadeak bere eskua umearen buru gaiñean ipintean.

Gurasoak, aita-amabitxiak eta batzarrean dagozan beste

guztiak be Itzaren Liturjia deritxan zati onetan esku artu begie. Zelan? Ba, aonelan, esate baterako:

- Irakurgairen bat edo beste irakurriz.
 - Abadearen azalpena zur entzunez.
 - Alkarrizketarik badadi, orretan tarteko izanez.
 - Abestiak abestuz, zein ixillik ausnartuz.
 - Jainko-erriaren otoitza egiterakoan, eskabideak egiñez.
- Gurasoak eurak izentau dagikeez, gaiñera, elizkizunean irakurriko diran Liburu Santuetako zatiak.
- Ona emen zeintzuk aukeratu dagikeezan:

- *Itun Zarretik*: Urt. 14, 15-15, 1; 17, 3-7; Ez 36, 24-28; 47, 1-9.
- *Apostoluen Idazkietatik*: Errom 6, 3-5; 8, 28-32; 1 Cor 12, 12-13; Gal 3,26-28; Ef 4, 1-6; 1 Ptr 2, 4-5 ta 9-10.
- *Ebanjelioetatik*: Mt 22, 35-40, 28-18-20; Mc 1, 9-11, 10, 13-16, 12, 28-34, Jn 3, 1-6; 4,5-14; 6, 44-47; 7, 37-39; 9, 1-7; 15, 1-11; 19, 31-35.

Zatiok norberak aurretiaz irakurtea ondotxo letorke Bateo-misterioan sakontzeko. Auxe izango litzateke, izan be, zuen umearen Bateorako prestabiderik egokiena.

BATEO-ELIZKIZUNAREN ZERTZELADAK ONDO-BETE

Bateorako gauza bi dira bear-bearrezko: ura lenengo, goi-ondasun dan grazia ta Jainkoaren esku artzea berorrek adierazoten dauz-eta; sinismena urrengo, berau dogu-ta gizonaren erantzuna.

Ori dala-ta, otoitz egingo dogu Jainkoak uraren bidez egin dituan miragarriak gomutara ekarriaz eta miragarriok dirala-ta Bera goratuaz, eta, gero, gure sinismenaren agiriko autormena batzartuta dagozanen aurrean egiteko be estatuko jaku, Bateoaren agintzak oraingotuaz.

Une au Bateo-ospakuntzaren gaillurra da, beronen garrantzia ezin esan alakoa dalako. Bateoaren betekizunetara euren buruak benetan lotzeko erabagi sendoa dabena bakarrik erantzun dagikee zintzotasunez.

Ondoren, dana prest dagoanean, guraso ta aita-amabixiak bateo-lekura daroe umea.

Bateatzailleak umearen buru gaiñera ura ixurten dau, berbok esanaz: «Nik bateatzen zaitut Aitaren...»

Ez dago or ezer be mire egitekorik. Miragarririk aundienak gauza utsen bidez egin oi ditu Jaungoikoak. Sinisten dogunontzat naikoa da, baiña.

Urak garbitzea, bizitza adierazoten dau, au da, jaiotza barria, Kristo'ren Eriotza ta Biztuera... Garrantzizkoa ta joan-etorri aundikoa ez da begiz ikusten dana, barruko mamiña baiño.

Kristo'ren gorpuzkide egin gareala? Umeari ipinten dautsagun jantzi zuriak erakusten dausku ori.

Kristo'ren Biztueraren indarrez eskuratu dogula bizitza barria? Pazko-zuzian kandela ixiotzeak orixe esan gura dau.

Elizaren zati egin garala? Umearen burua krismaz igurtziteak jakiñazoko dausku.

Jaungoikoak maite-maite gaitu, ta maitakuntza au ezau-garrien bitartez erakusten dausku; izan be, aragizko ta azurrezko izakiak gara-ta.

Ona emen gurasoak eta aita-amabixiak Bateoa ospakeran emon bear dabezan erantzun batzuk:

Ura bedeinkatu ondoren, bateatzailleak aonelan diño:

Bateatzailleak: **Aita-ama ta aita-amabixiak: ona ekarri dozuezan umeok, Bateoaren bidez, Jaungoikoaren maitasu-**

gandik bizi barria izango dabe urez eta Espiritu Santuaz.

Alegindu zaiteze umeok feadearen bideetan azten, Jainkozko bizi ori pekatu-kutsutik garbi egon daiten, eta egunetik egunera, aundiagotuz joan.

Beraz, eginkizun au zuen fedearen indarrez eta Bateoaren gomutaz zeuon gain artu nai badozue, uko egiozue pekatuari ta autortu agirian Jesukristogan dozuen sinistea: auxe da Elizaren sinistea, siniste onetan dira bateatuak ume guztiak.

Bateatzailleak: Jainko-semeen askatasunean biziteko, uko egiten dautsazue pekatuari?

Guraso ta aita-amabitxiak: Bai, uko egiten dautsot.

Bateatzailleak: Pekatuak menperatu ez zagiezan, uko egiten dautsezue pekatu-bide guztiai?

Guraso ta aita-amabitxiak: Bai, uko egiten dautset.

Bateatzailleak: Uko egiten dautsazue pekatuaren iturri eta nagusi dan Satanasi?

Guraso ta aita-amabitxiak: Bai, uko egiten dautsat.

Bateatzailleak: Sinisten dozue Jaungoikoa, Aita guztialduna, zeru-lurren egilea?

Guraso ta

aita-amabitxiak: Bai, sinisten dot.

Bateatzailleak: Sinisten dozue Aren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Ama Birjiñagandik jaioa, nekaldu ta obiratu, biztu ta Aitaren eskui-aldean jarririk dagona?

Guraso ta

aita-amabitxiak: Bai, sinisten dot.

Bateatzailleak: Sinisten dozue Espiritu Santua, Eliza Santu ta Katolikua Santuen alkartasuna, pekatuen parkamena, illen biztuera ta betiko bititza?

Guraso ta

aita-amabitxiak: Bai, sinisten dogu.

Bateoa emokeran, bateatzailleak Elizaren sinismenean umea bateatzeko gogoia barrero be agertu dagiela eskatzen dautse gurasoai:

Bateatzailleak: Nai dozue, beraz, zuen umea bateatzea alkarrekin agirian autortu dogun Elizaren fedean?

Guraso ta

aita-amabitxiak: Bai, nai dogu.

Urrengo, elizkizunaren «osagarri» deritzen zatiak datoz. Ez dauke urak lango esankizun sakonik. Orregaitik deritxe osagarri. Onelakoak dozuz:

— Lenengo, umea buruan krisma santuz «igurtzi».

— Bigarrengo, umeari «jantzi zuria» ezarri. Familikoak

eurak eroan bear dabe jantzi zein zapi zuri bat eta umeari ipiñi. Amabitxiak egin lei.

— Irugarrenko, «argiaren oikunea». Zera da: batea-tzailleak Pazko-zuzia aurkeztuz, badiñotse: «Artu egizue Kristo'ren argia».

Une onetan famili bakotxeko batek, aal badadi, aitak berak ixiotu begi kandealea Pazko-zuzian. Kandealea sendi bakotxak eroan legike, gero Bateoaren gomutagarri izan dakion.

GURE EGITEKOA BURUTU AAL IZATEKO, JAINKOAREN ETA ANAI-ARREBAEN LAGUNTZA OPA IZAN

Jainkoari eskerrak emotekoa da. Gure seme-alabak «AITA» deitu degikeoe. Orregaitik guztiok «Gure Aita» esaten dogu, ta pozez gaiñezka abestu egiten dogu.


Bateoa Meza bitartean ospatu ezkeru, irakurtaldien eta berbaldiaren ondoren egin bear da.


Bateoa Meza barruan ospatzeak gauza bi adierazoten dauz: bata, Eukaristiaz daukan zer-ikusia agertu egiten dau. Eukaristia, izan be, kristau bizitzaren gaillurra ta e-piña da. Bigarrena: kristau alkarteari Bateo-ospakuntzan esku-artzeko era egokiagoa damotso, kristau bariak alkarte barruan artuaz, norberak bere Bateoaren eskakizunak barriztetako aukerea dauko-ta.

Olantxe ospatzen da Bateoa. Elizkizunera etorri diranak alden du egingo dira. Bizitza barri bat jai o da. Ez da, baiña, dana amaitu. Zeregin aundia izango dogu orain. Bateoaren eginbeurrak bete egin bear ko dira, ta ume-txoa fede eldu batera eroan. Eldutasun au Sendotzaren, lenengo Jaunartzearen eta lenengo Autortzaren bidez lortuko da.

Ta egun batez umeak fede ori aintzat eta beretzakotzat artu balegi, ta zuzentasunez eta maitasunez egian bizirik, bere bizitzaren ardatz izan balekio, orduantxe esango genduke gure egitekoa amaitu dala.

Ezerezak gara, ori bai. Ez izan, baiña, bildurrik. Jainkoa geugaz dago, geu Beragaz egon ezkeru. Bera izango dogu indar-emoille. Kristau alkartea be bai. Abadearen azken bedeinkapenak orixe adierazo nai dausku.





VII. - ONELAKOAK ETE DIRA ZUEN ERAGOZPENAK?

SEME-ALABAK BATEATU, ZEIN BATEATU EZ, ORI BIDEZ EGIN ETE GEINKE GURASUOK?

Berbakizun au zuen artean erabilliko zenduen, bearbada, zein beste batzuei erabilten entzun. Arazo gordin-gordina da. Gurasoak fedearen bide arriskutsuetan ipiñi ete dagikee euren umea, beronen eritxia zein dan jakin bagarik? Kristau egin ete legikee, umeak zer gura dauan jakin baiño leenago? Ez ete dautse, gero, umeak biar edo etzi onoko au arpegira botako: «Zer zala-ta bateatu ninduzuen?»

Bestetara be, baiña, jazo leiteke. Gurasoak euren seme-alabak bateatuko ezpalebez, oneik esan legikeoe: «Zergaitik ez ninduzuen bateatu, beste umeak egin oi dabezanez? Zergaitik ukatu daustazue onen luzaro Bateoaren goiondasuna? Zuek kristau zareen ezkerro, zergaitik ukatu niri Elizarako sarbidea?»

Bateoa artzea berez jakiñaren gaiñean eta askatasunez egin bearrekoa da, norberaren gogoz artu bearreko erabagia. Umeak, ostera, ez dau orrelakorik egiten. Ta Elizeak, jakin be, badaki ori.

Alan da guzti be, Elizeak beti bateatu izan ditu ume-txoak. Zer dala-ta?

Elizeak uste dau, aita ta ama kristauak baldin badira, euren seme-alabak be gurasoen goi-ondasunen jabe izateko eskua dabela.

Elizeak berak, gurasoak eta kristau alkarteak aurrera-tzen dabe Bateorako nai ta ezko dan sinistea, ta siniste onetan bateatzen da umea.

Gurasoak berbea emon bear dabe umea fedearen bideetan eziko dabela, ta, Elizaren ustez, berba au naikoa da umea bateatzeko.

Elizeak badaki, gaiñera, arazo onetan Jaungoikoak aurea artzen dauskuna, Bateoa Jainkoak Berak utsean emona dana, ta Espiritu Santuak umetxoengan ekiñean diarduana.

Askatasun edo aukeramen oso-osorik eta egin-egiñik ez daukagu, egundo be, lurgain onetan. Inguruan daukagun erriak, giroak, familiak mugatzen eta etorbideratzen dau gure bizikerea. Gurasoak sinistun badira ta euren seme-alabei sinismena opa badautsee, ezibide orixe emongo dautsee. Kristau etxe baten umeak sinisten ikasiko dau, biziten eta maitatzen ikasiko dauan antzera. Aitak eta amak euren seme-alabei al danik eta gauzarik onena emoteko eskua dauke. Bizia emon dautsenez gero, zoragarriago dan fedea be emon oi dautsee.

Arriskua, orraitño, beti izango da gitxiago zein geiago. Aundi egindakoan umeak baztatu legike fede ori.

Au ezin leiteke ezelan be aurrez ikusi.

Ezin daikegu, alan be, geure artean esan: «Guk bateatu egingo doguz, bai, ta eurak jakingo dabe zer egin».

Seme-alabak Bateoaren osotasun batera eldu bear dabe, berori aintzat arturik eta berorren esanetara jakiñaren gaiñean bizi izanik. Eta zeregin onetan gurasoak lan-arlo zabala dauke. Ezer be ez egitea, seme-alabaen aukerarena edo askatasuna txantxetan artzea izango litzateke.

Seme-alabaen fedea sustraitu ta sendotu daiten, Bateoaren eskakizunak eurenganatu dagiezan eta orretarako bear dan bizi-giroa sortu daiten, gurasoak berariaz arduratu bear dabe.

TA GUK GURE UMEA EZAGUERARA ETOR DAITENEAN BATEATU NAI BAGENDU, ZER?

Izan leitekena da. Elizeak ez zaitue olako naiz alako egunetan bateatzera beartzen (ikus C. I. C. 750). Zeuok, gurasuok ikusi bear dozue, arazoa arduraz aztertuta, zein dan zuen umetxoa bateatzeko unerik egokiena, kristau alkartearen eritxiak eta Elizak irakatsia gogoan dozuezala.

Gurasoak egi-egitan kristau izan ezkeru, Bateoa atzera-tzea noizean bein egin leitekena da; ez, baiña, geien geienetan.

Erabagi au artzeko, lekuan lekuko Elizeak arlo onetan zein eretxi daukan jakin bear da ta zer ebatzi dauan gogoan izan.

Norberak nai dauala-ta beste barik ezin leiteke orrelako erabagirik artu. Gurasuak arduraz jakin bear dabe zer nai daben, eta buruz eta egitez elburu au lortzeko erabilli bear ko diran bideak argi ikusi, ebatzi ori artzea zertarako dan jakin eta eurak zertara beartzen diran be bai.

Umeen Bateoa atzeratuarren, esate baterako, umetxoa gizon legez eta kristau legez ezagueradun izango dan urteetara etorri arte, orrek eleuke ezelan be esan gura

izango gurasoak seme-alabaen kristau ezibidea alde batera itzi bear dabenik.

Bestetara, bai. Arazo au bene-benetan artzen dabela adierazo bearko leuke; Bateoa ta fedea zertarako diran umeari irakasten arduratuko dirala, ta Kristo'ren eta Elizaren oso-osoko atal izan daiten saiatu be bai, orretarako bear diran sakramentuak artzen eta elduta-sun ori eskuratzen lagundurik.

Guzti au egin ezkeru, orduantxe bakarrik konturatu litzake umea zer egiten dauan, ta berari dagokion erara ta askatasunez onartu be orduantxe bakarrik egin aal izango leuke. Orretarako, barriz, auxe bearrezko: gurasoak euren fedea landuteko ta umetxoa kristaubidean eziteko gai izan daitezala. Gurasoak euren semealabaxoaren sinismena biztuazoteko ta geroago egingo dabena jakiñaren gaiñean egiteko bear diran bideak artuko ezpalebez, uts eta alperreko litzake Bateoa atzeratzea.

TA UMETXOA BATEOA ARTU BARIK ILGO

BALITZ, ORDUAN ZER?

Arriskua badago, emon. Baiña mediku-jakintzaren eta gizartearen aurrerakuntzari eskerrak, arrisku ori alik eta geien txikitu dala esan geinke gure egunotan. Umeak ez dira leenago beste ilten. Biziko diran ziurtasun aundia daukagu, aparteko ezbearren bat etor ezpadakio.

Umea, jakiña, bateatu egin bear litzake, eriotzako arriskua etor balekio. Ta bateatu be, edozein kristauk bateatu dagikena, ori edonork daki. Orretarako ura bear dau ta umeari buruan ixuri, berbok esaten dituala: «Nik bateatzen zaitut Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean».

Goazen, baiña, arira, ta itandu dagigun: «Umetxoren bat bateatu barik il baledi, zeruratuko ete litzake?»

«Gogozko bateoa» dauken guztiak zeruratu daitezke. Ori beti irakatsi izan dau Elizeak. Baita Elizan sartzeko gertetan asi diranak be, au da, aintxiña kristaugai eritxenak be. Ta onelakoak dituzu Bateoa artzeko elizalkartean izena emonda dauken umeak.

Izena emon bagarik dauken umeak eurak be zeruratu leitezke. Gaur Elizan zabal-zabal daukagun ustea ta eritxia auxe da: umetxo bat ezin daitekela galdu, ezetariko pekatuak berak egin ez daualako. Egia da, bai, bateatu aurretik jatorrizko pekatua daukana. Baiña baita egia da, bateatu barik egonarren, Kristo'ren guztizko salbazio-egintzaren barruan dagoana be. Ta pekatua Kristo'ren eriotzak menperatu egin ebala ez ete diño, gero, S. Paulo'k?

«Beraz, baten (—Adan'en) pekatutik gizaki guztiak ondamendia etorri jakenez, baten (—Jesukristo'ren) zindotasunetik be gizaki guztiak bizirako zindokuntza eldu jake. Eta baten menpetasun-ezagaitik askotzak pekatari gelditu ziranez, beste baten menpetasunagaitik be askotzak zindotuko dira. Legea etorrita gero, barriz, pekatua be ugaritu egin zan. Baiña pekatua ugari izan zanean, ugariago sortu zan grazia». (Errom. 5, 18-20).

Ta, izan be, Kristo'k pekatua azpiratu badau ta guztiok zeruratzea nai, bidezko da bateatu bako umeak be zeruratzea, ez dabe ezetariko okerrik egin-eta. Ta Adan' engandik datorkigun pekatua izanarren, pekatu ori gaindua izan da. Ori bai, salbamena beti izango da gizonarentzat ezkutapen sakon-sakona.

Baiña Adan'engandiko pekatupean dagozalako, bateatu bako umeak zeruratuko ezpalira, Kristo'ren erospenak porrot egin dauala ezbai bagarik esan bear genduke. Ta ori ezelan be ezin izan, «pekatua ugari izan zanean, grazia ugariago sortu zan»-eta.

NUN - ZER

	<i>Págs.</i>
I.—UME BAT JAIO JAKU TA.	5
Gauza aundia dala? Bai ta ez.	5
Zorionak!	6
Ta ospatu egin bear	7
II.—UMEAK BATEATU EGIN BEAR ETE DIRA?.	9
«Beti orixe irakatsi dauskue-ta—	9
«Gure semea kristau izatea nai dogu»	11
Indarra bai... indarrik ez	12
III.—ZER ESKATZEN DAU ELIZAK UMEAK BATEATU AAL IZATEKO?.	15
Aldakuntzak dirala-ta.	15
Egiatzko sinismena	16
Elizaren zati.	20
IV.—GORA AUNDIKO GAUZAK EZ DIRA ARRAPALADAN EGITEN	23
Gertau egin bear	23
Beste batzuekaz alkartu	24
Noiz? non? zelan?	25
V.—BATEOAK ZER DAKARSKUN	27
Bateoa Jainkoaren emoia da.	27
Bateoak eginkizunak dakarz gizonarentzat	29
VI.—BATEOA ZELAN OSPATZEN DAN	33
Taldean egin	33
Jainkoaren Itza iragarri ta onartu	35
Bateo-elizkizunaren zertzeladak ondo bete	36
Gure egitekoa burutu aal izateko, Jainkoaren eta anai- arribaen laguntza opa izan.	40
VII.—ONELAKOAK ETE DIRA ZUEN ERAGOZPENAK?.	43
Seme-alabak bateatu zein bateatu ez, ori bidez egin ete geinke gurasuok?	43
Ta guk gure umea ezaguerara etor daitenean bateatu nai bagendu, zer?.	45
Ta umetxoa BATEO artu barik ilko balitz, orduan zer?.	46

